

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultur elkarteentzako 2020rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriak

Alkatearen 2020ko martxoaren 2ko 200302D Dekretuaren bidez, onarpena eman zitzaien irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultur elkarteentzako 2020rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriari, zeinen testu osoa denek jakin dezaten argitaratzen baita.

Behin betiko ebazpen honek administrazio bidea agortzen du.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen aurka interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dituzte ebazpen hau argitaratzen denetik aurrera.

Hala ere, lehenago aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote alkateari, eta horretarako hilabete izango dute oinarriak argitaratzen direnetik aurrera.

Aurrekoetz gain egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Oinarrien testu osoa eranstean da argitaratu dadin, eta 30 eguneko epea ematen da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek eskaerak eta aurkeztu beharreko agiri guztiak aurkez ditzaten dirulaguntzak lortzeko.

Legutio, 2020ko martxoaren 2a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO GIZARTE ETA KULTUR ELKARTEENTZAKO 2020RAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontu mugen barruan lankidetzan jardutea, legeztatutako elkarteek udal mugarte barruan sustatutako gizarte eta kultura jarduerak 2020an sortutako gastuak finantzatzeko, interesgarritzat hartzen badira udalerrientzat.

2. Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarteak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira.

Ez dira izango dirulaguntzaren onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluan ildo horretan ezarritako gorabeherak betetzen dituzten eskatzaileak.

3. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kultura elkarteek proposatutako kultura programen barruko jarduerak antolatzean sortutako gastuak, kokatuta dauden udalerrri edo populazioari bideratuta badaude eta 2020. urtean garatu beharreko egutegi zehatza badaukate, tartean tailerrak, kontzertuak, jardunaldiak, antzezlanak, leku turistikoak bisitatzea, eta, oro har, kultura sustatzeari lotutako jarduerak.

Ez dira diruz lagunduko bazkariak, dastatzeak eta edariak. Autobus bidaiak direla eta, merkatuko bidai preziorik merkeena baino ez da diruz lagunduko.

4. Aurrekontu kreditua

Legutioko Udaleko aurrekontuan irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultura elkartei bideratutako 330.481.010 dirulaguntzen aurrekontu aplikazioa aurreikusi da. Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa, 2020ko ekitaldirako, 25.500 euro da.

5. Dirulaguntzen izaera

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da hartzen inolako betebeharririk deialdi honetara aurkezten diren eta oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko.

6. Dirulaguntza emateko prozedura

Lehiaketa izango da dirulaguntza emateko prozedura. Eskaerak erkatu egingo dira, betiere berrmatuko direlarik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako publikizitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, diskriminaziorik ez, eta eraginkortasun eta efizientziaren printzipioak.

7. Dirulaguntza eskabideak aztertzeako irizpideak

Hauek izango dira dirulaguntzak emateko balorazio irizpideak:

a) Prestatutako ekintza, proiektuaren edo programaren bideragarritasun, seriotasun eta interesagatik, gehienez: 30 puntu.

b) Asebetetze eta partaidetza mailagatik, elkarte berak aurreko urteetan eskatutako dirulaguntzen benetako gastuaren justifikazioa eginez, gehienez: 10 puntu.

c) Zer interes publiko edo sozial duen jarduerak; baita zer interes duten ezarritako helburuek ere, gehienez: 20 puntu.

d) Programa edo jarduerak euskararen zabalkundeari egiten dion ekarpena, gehienez: 20 puntu.

e) Beste erakunde batzuetan eskaera egin izana egiaztatzeagatik, gehienez: 10 puntu.

f) Berdintasuna eta gizarteratzea sustatzeagatik, gehienez: 10 puntu.

8. Dirulaguntzen kopuruak, izapidetzeko erakunde eskudunak, dirulaguntzak ematea proposatzea eta ebaztea

Aurkeztutako eskaeren balorazioaren araberakoak izango dira dirulaguntzak.

Kultura Batzordeak egingo du balorazio hori, Kultura eta Euskara teknikariak lagunduta. Elkarteek aurkeztutako eskaerei buruzko txostena eta aurreko urteetan aurkeztutako dirulaguntzen zerrenda egin beharko ditu hark.

Batzordeak, txostenean eta eskaeretan oinarrituta, eskaera bakoitza baloratuko du, 0 eta 100 puntu bitartean.

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren arabera gehieneko dirulaguntza adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko aurkeztutako aurrekontua oinarritzat hartuta.

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA, GEHIENEZ
0 - 25	Ehuneko 0
26 - 55	Ehuneko 30
56 - 70	Ehuneko 60
71 - 100	Ehuneko 80

Balorazio horretan eta 2020ko ekitaldirako dagoen aurrekontu partidan dagoen diruan eta eskatutako dirulaguntzetan oinarrituta, jarduera zerrenda bat egingo da.

Bakoitzak lortutako balorazioaren arabera aurkeztutako eskaeren artean aurrekontu partida banatuta, Kultura Batzordeak udalbatzari dirulaguntzak emateko erabaki proposamena aurkeztuko dio.

9. Eskabideak eta aurkezteko epea eta tokia

Dirulaguntza hauek lortu nahi dituzten elkarteek eskabideak eredu formalizatuan aurkeztu beharko dituzte (I. eranskina).

Eskabideak Legutioko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, Carmen kaleko 10. zenbakian, edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide baliatuta.

Eskaerak eta agiri osagarriak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak edo berarekin batera aurkeztutako nahitaezko agiriek hutsen bat badaukate edo osorik ez badaude, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hautemandako akatsak zuzentzeko; epe hori igaro eta esandako akatsak ez badituzte zuzendu, beren eskaeran atzera egiten dutela ulertuko da eta prozedura artxibatu egingo da.

Elkarte bakoitzak eskaera bat baino ezingo du aurkeztu.

10. Eskabidea osatzeko dokumentazioa

Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.
- b) Ordezkeri gisa jarduten duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, nola eta eskaera orria izenpetzen duena erakundearen lehendakaria bera ez den.
- c) Erakundearen estatutuen fotokopia eta Eusko Jaurlaritzako Elkartea eta Erakundearen Erregistroan legea betez eratuta egotearen ziurtagiria (baldin eta ez badu aurkeztu beste deialdi batzuetan).
- d) Elkartearen identifikazio fiskaleko kodearen kopia, baldin eta aurreko deialdietan aurkeztu ez bada.
- e) Zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzako betebeharren ordainketa egunean edukitzearen ziurtagiria.
- f) Jardueraren proiektua; ondoko hauek azaldu behar dira, modu bereizian:
 - I. Lortu nahi diren helburuak.
 - II. Garapen egutegia.

III. Jarduera edo programaren kostua, banakatuta.

IV. Deialdi honetatik kanpo kudeatuko diren baliabideak.

V. Beste erakunde batzuen dirulaguntzak (Aldundia, etab.). Kopurua ezagutzen ez bada, aurreko urtean lortu den ala ez eta diruz lagundutako kopurua zenbatekoa izan den zehaztu beharko da.

VI. Jarduera bakoitzeko diru sarrerak.

VII. Bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota.

VIII. Taldeko kideen zerrenda, sexuen arabera banatuta.

g) Elkartearen titulartasuneko kontua, banku erakundeak behar bezala egiaztatua, baldin eta aurreko deialdietan aurkeztu ez bada.

h) Legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, elkarte dirulaguntzak jasotzeko gaitasungabetua ez dagoela adierazten duena (II. eranskina).

i) Erantzukizunpeko adierazpena, beste erakunde publiko zein pribatu batzuek dirulaguntza eskaeraren xede den proiekturako emandako edo erakunde horiei eskatutako dirulaguntza edo laguntzena (III. eranskina).

Erakunde onuradunek hitzematzen dute beraiek egindako jardueren inguruan Legutioko Udalak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak aurkeztuko dituztela.

11. Dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukziorako, proposamenerako eta ebazpenerako eskumena daukaten organoak

1. Kultura Informazio Batzordeak proposatuta, lehiaketa bidez emango ditu dirulaguntzak udalbatzak, alkateak edo lehendakariak dagozkion oinarriak onartu ondoren. Batzordeak, proposamen hori egiteko, egoki irizten dituen aholku teknikoak eskatu ahal izango ditu.

2. Informazio Batzordeak ezin du proposatu, inola ere, oinarri arautzaileetan ezarritakoa urratzen duen dirulaguntzarik emateko.

3. Zalantzarik egonez gero oinarri hauek interpretatzerakoan, Legutioko Udaleko Kultura Batzordeak argituko du.

12. Ebazteko epea

Deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sei hilabete izango dira gehienez ere prozedura ebatzi eta haren berri emateko.

Gehieneko epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko diote alkateari hilabeteko epean, ebazpen hori ematen denetik aurrera; bestela, zuzenean aurkeztu ahalko dute administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean. Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtso ere aurkeztea.

13. Dirulaguntzak ordaintzea

Elkarte bakoitzari dagozkion dirulaguntzak ezarri eta gero, ondoko banaketa honen arabera ordainduko dira:

– Dirulaguntza ordainketa aurreratu baten bitartez ordainduko da, justifikatu aurretik, programa garatzen hasterakoan diruz lagundutako kopuru osoaren ehuneko 75 ordainduz; bermea jartzea ez da beharrezkoa izango jardueren interes soziala dutelako. Nolanahi ere, interesa betetzen ez bada dirua itzultzeko eskatu edo erantzukizun eskaerak egin ahalko dira.

– 2020. urtean egindako jardueren memoria eta ordainketa ziurtagiriak aurkeztu ondoren gainerako ehuneko 25a ordainduko da.

14. Dirulaguntza justifikatzeko epea eta era

2021eko urtarrilaren 31n bukatuko den epean, dirulaguntzen erakunde onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Justifikatzeko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diruz lñagundutako gastuen justifikazio memoria, entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.

b) Jatorrizko fakturak edo horien fotokopia konpultsatuak, argi identifikatuta egon behar dutelarik datu hauekin:

- Jaulkitzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, izenarekin edo sozietatearen izenarekin eta NAN edo IFZrekin (ahal dela, elkarte edo klubaren izenean).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

c) Elkarte edo klubak izandako diru sarrera edo gastu guztien zerrenda.

d) Zinpeko adierazpena, entitate onuradunaren ordezkariak sinatutakoa, gastua finantzatu duten dirulaguntza edo diru sarrerei buruzkoa, zenbatekoa edo jatorria adieraziz.

e) Egindako publizitate materialaren ale bat (kartelak, eskuko programak, etab.)

f) Fakturak ordaindu izana egiaztatzeko dokumentazioa Honako hauek ordainagiri gisa onartuko dira:

– Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Jatorrizko bankuko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituena.

– Posta elektronikoz jasotako bankuko kontu laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.

– Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak.

Honako hauek ez dira gastuen justifikagarri gisa onartuko:

1. Honako hauek argi identifikatuta ez dituzten fakturak edo agiriak:

- Jaulkitzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, izenarekin edo sozietatearen izenarekin eta NAN edo IFZrekin (ahal dela, elkarte edo klubaren izenean).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

2. Zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

15. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira horrelako kasuren bat gertatuz gero:

- a) Aurkeztutako eskaeran edo agirietan gezurrezko datuak azaldu badituzte.
- b) Emandako dirulaguntza ez bada erabili aurkeztutako eta onartutako programan aurreikusten diren jardueretarako.
- c) Hasierako aurrekontuan aurreikusitako gastuak (zegokien ehuneko ekonomikoa aztertzeko erabilitakoak) ez badira modu zuzenean justifikatu faktura eta ordainagiriekin, 13. oinarriak ezarritako betekizunekin bat etorritik. Gastuaren partezko justifikazioa eginez gero, justifikatu ez den gastuaren baliokidea den diru kopurua itzuli beharko da.
- d) Jardueraren benetako kostua kontuan hartuta gehiegizko finantzaketa lortu bada; halakoetan sobera dagoen diru kopurua itzuli beharko da.
- e) Gainfinantzaketa egon bada, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek dirulaguntzak edo laguntzak eman dituztelako; halakoetan, onuradunak Legutioko Udalak emandako zenbatekoa itzuli behar du, halako moldez non ez den gaindituko proiektuaren edo jardueraren kostuaren ehuneko 100.
- g) Oro har, oinarri hauetan, araudi aplikagarrian edo dirulaguntzaren kontzesioan ezarritako edozein betebeharrak ez bada, esaterako oinarri hauen 15. eta 16. puntuetan jasotakoa.
- h) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua jasotzen dituen gainerako itzultze arrazoietatik edozein gertatuz gero.

Itzultzeko prozedura izapidetuko da Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak horri buruz xedatutakoarekin bat etorritik, hura udalbatzaren, dirulaguntzak ematen dituen organoaren edo organo eskuordearen erabakiaren bidez ebatziko da, eta betiere entzunaldiko izapidea emango da.

Zenbatekoak ez badira horretarako ezarritako epean itzultzen, kasuan kasuko berandutze interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaindutako unetik itzuli beharra erabaki artekoak.

16. Lankidetzak

Legutioko Udalak, berak kultur hedapenerako antolatutako kanpainak aurrera eramateko egoki irizten dion kasuetan eta dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera, elkarte edo klub onuradunek egin beharreko lankidetzak idatziz zehaztuko du, urtean zehar.

Erakunde onuradunak berak udalerrian egiten den kultura jarduerara bat gutxienez antolatzeko edo bertan lankidetzak emateko baldintzaren pean egongo da dirulaguntza.

17. Betebeharrak

Udalak oniritzia eman aurretik, elkarteek udalaren armarrira garatutako material guztietan jarri beharko dute (irudiak, kamisetak, etab.), dirulaguntza lortzeko aurkeztutako aurrekontuan gastu gisa jaso bada edo udalak erabat finantzatzen badu.

18. Dirulaguntzak emateko arazoak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketa garrantzitsuak egon badira, ebazpena aldatu ahalko da.

19. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei buruzko arloan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren jatorriko arauak eta lege horren erregelamendua onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. tituluak.

20. Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Legutioko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.

Legutio, 2020ko martxoaren 2a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL DESARROLLO DE ACTIVIDADES CULTURALES (ANEXO I)

ENTIDAD SOLICITANTE:
Nº DE REGISTRO DE ASOCIACIONES:
IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA:

PRESIDENTE:
D.N.I. :
DIRECCION:
TELÉFONO:

DOMICILIACIÓN DEL PAGO DE LA SUBVENCIÓN:
ENTIDAD DE CREDITO: _____ SUCURSAL: _____
Nº DE CUENTA: _____
TITULAR:

FIRMA:

PROYECTO 2020 PROIEKTUA

Ekintza/ actividad:.....

Deskribapena/descripción:.....
.....
.....
.....
.....
.....

Helburuak/ objetivos:

-
-
-
-
-

Data/fecha:

Hizkuntza/idioma:.....

Partehartzaileak/ participantes:.....

Aurrekontua/ presupuesto:

Aurrekontua banan-banan / presupuesto desglosado:

- ✓ Ekintza/actividad:
- ✓ Garraioa/transporte:
- ✓ Monitoreak/monitores:
- ✓ Besterik (adierazi zeintzuk)/ otros (detallar cuales):

Sarrerak/ ingresos:

- ✓ Kuotak/cuotas:
- ✓ Besterik/otros

ANEXO II

DECLARACIÓN RESPONSABLE DE NO ESTAR INCURSA O INCURSO EN CAUSA DE INCOMPATIBILIDAD PARA LA OBTENCIÓN DE SUBVENCIONES

Doña/Don, _____, con DNI _____, actuando en nombre y representación de _____, con CIF _____, y con domicilio a efectos de notificaciones en _____, como _____,

DECLARO:

Que ni yo ni la entidad a la que represento estamos incursas o incursos en ninguna de las causas de incompatibilidad ni prohibición para la obtención de la condición de persona beneficiaria de subvenciones establecidas en el artículo 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos lo extiendo,

En _____, a _____ de _____ de _____.

Firmado,

ANEXO III

**DECLARACIÓN RESPONSABLE DE LAS SUBVENCIONES O AYUDAS SOLICITADAS U
OBTENIDAS DE OTRAS INSTITUCIONES PÚBLICAS O PRIVADAS PARA EL PROYECTO OBJETO
DE LA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN**

Doña/Don, _____, con DNI
_____, actuando en nombre y representación de
_____, con CIF _____, y con domicilio
a efectos de notificaciones en
_____, como
_____.

DECLARO:

Que las subvenciones o ayudas solicitadas u obtenidas de otras instituciones públicas o privadas para el proyecto objeto de la solicitud en el año 2020 son las siguientes:

Entidad	Departamento	Importe

Y para que así conste y surta los efectos oportunos lo extiendo,

En _____, a ____ de _____ de _____.

Firmado,